


Euskararen muga berria

Euskalkulturaren giroa gaur ikusi-ta, auxa esan bear: euskararen mugak lertzen daudela.

Ortxen dugu Errioxa'ko eredu. Gero ta geiago dabiliz euskalaztarnak astintzen: San Millan'go liburu zarrak direla, Gonzalo de Berceo-ren olerkiak, lur-izenak eta abar. Dantekin zer esanik ez. «Katxi» delako dantzaria, Ebro ibaian bi alderdian arkitzen dugu.

Azkeneko berria galanta da. Errioxa'n ez dute bakarrik euskal kultura aipatzen, orain Errioxa'ko gizaseme batzuek zutik jartzen ari dire, euskara ikasteko gogoia erakutsiz. Ikusi bear adibidez Kalagurria'ko gazte taldea. Gertakizun oneri buruz bizpauru jokabide emanditugu (Euskara ta Kalagorria [Calahorra], Diario de Navarra 1997-3-2).



Euskara Serbitsua

Errioxa'k len euskal nortasuna Nafarroa'kin lotua zeukan. Orregatik uste genuen, berriz Errioxa'ri Nafarroa'k lagundu bear liokela bere euskal nortasuna pixten. Bidezkoa zeritzaidan. Pozgarritzko berri oneri buruz idazlan bat egin nuen eta idazlan ori besazpian artuta, Nafarroa'ko Jaurilaritzak Iruñan daukan «Euskara Serbitsua» delako lantokira joan nintzan berria ematera ta Kalagurri'ko gaztetzat laguntza eske. Aukera ezin ohea Nafarroa'rentzat, Errioxa'rekin arremanetan izateko. Gaueskoletako zuzendariaren atea jo nuen. Gogo on gutti azaldu zuen eta ezezkoa eman zidan, Nafarroa'k ezer gutti ikusi bear zula neramakin Errioxa'ko ereduarekin. Entzuteko gogorik ere ez zula, oartu nintzen. Zuzendariarekin mintzatzeko aukera eskatu nion. Ezezkoa eman zidan, baita atek itxi. Ikargarritzko diruak kostatzen diren lantokian, zertarako? Euskara, oien eskuetan ain garesti ateratzen dela, gutxinaz ardura azaldu. Aien aurrera joan bear,

ateak sugur antzinean ixteko. Euskarari eragozpenak jartzeko ez daude ordainduak. Ez aztu, zergako diruarekin ordainduak daudela. Nun dago euskararen maitasuna?

Gazteiz'ko Jaurilaritzan: Josune Aristondo Akarregi

Bizpauru aste geroago, Gazteiz'ko Jaurilaritzan nengoen. Josune Aristondo Akarregi ta Xabier Aizpurua Telleria'k onartu ginduzten. Guretarak iru giñen: Augustin Zubikarai, J.M. Murua ta ni. Bi ordu iraun zuen gure elkarizketak. Burubelarri zeuden guri entzuten. Gure gaietaz mintzatu giñen. Gero Errioxa'ko gazte talde baten euskalzale-tasuna agertu nien, batez ere euskararen irakasle baten bearra

Kalagurria'n. Zutik jarrita, alaitasunez beterik erran zigun Josune Aristondo'k: «Bidaliz ezaidazu neregana Kalagurri'ko gaztea eta nere gain artuta bidaliko diet euskarazko irakaslea». «Euskara laguntze arren, zernai egiten dugu», jarraitu zuen. Josune Aristondo oartu zen euskara dela Euskalerriko ardatza ta Gazteiz'ko Jaurilaritzaren langille argia bezala zai zegoen nunai euskal gogoia zuzpertzeko. Orrela-ko axrrera onarekin lasaitu giñan.

Ettxera iritxita, Luis Antón López, Kalagurri'ko gazteari deitu nion, Gazteiz'ko berri pozgarria emanen. «Txundituta utzi nauzu, ori berri onal»: erran zidan. «Lizarrako Euskaltegiko Xabier Azanza'rekin arremanetan nabil... eskerrikasko», jarraitu zuen.

Zorionez eta euskaldun ziñez-koei esker, euskararen muga berriak aurrera dijoaz...

Latxaga

Arbizu'ko aldarea

Berriain mendi ikusgarria, zaartzen ez den agurea / Sakana'tikan begirata, Arbizu'ko aldarea. San Donato ta San Cayetano'k, or dute leku gordea / arri sendozko ermitaxoa, gure zaar aien fedea!

Nere irudimenaren begiak, orrela ikusten dute Berrian mendia edo San Donato. Eta irudimenaz gain beste zerbait ere ba dago nere baitan, maitasuna. Nola ez? Nere ama Bizenta arbizuarra bait nuen.

San Juan bezpera eta Arbizu'ko jaien asiera, eta ni an. Elizkizuna asi aurretik txaranga eldu zen ermitara eta ni ia oartzen ez. Nere gogamenaz San Donato-pean dagoen soro batean nengoen, Bidau-l'en aitonarekin. Aittuna Joxe Antonio, gizon zimela eta osotasunez betea, goldean ari zen. Ni, naiz eta kalekume izan, ordungo amazapi urte aien kemenaz, pixka bat laguntzen nion. Beste garai bat zen, berrogeitamar urte igaro dira, don Juan Goikoetxea erretore zuten; arbizuarek aaztu ezin duten erretorea. San Juan'ak edo San Juen'ak zazpi egunez irauten dute. Ordungoak iru; gero urrengo goizean, goiztar, karrikan gurti otsa, San Juan laugarrena izanik jendea sorora. Ez zen izaten berebil otsik, eritarrak elkarizketan patxara onean an eta emen. Neure gogoan ere osaba Nikolas, gizon argia eta zuzena. Eta, nola ez? Izeba Maria, gozoetan gozoena; umentandik nere amaren lagun aundia. Kaferena-etxean, guraso zaarren jaiotetxean, aren arrera gozoak! —«Eldu zaaie, neskatua?» Izeba Maria'k ama Bizenta'ri. Eta amiña Anselma? Ura ez nuen ezagutzeko zoririk izan. Ni jaio aurretik il bait zen gajoa! (G.B. guztia)

Leengo artan murgildurik nengoela ermita barrura joana nintzen. Gaur koru eder bat ere ba dute; eta alako batean leena eta oraña lotu zitzaizkidan barnean. San Juan'en martxa entzuten ari nintzen. Orrela asten da:

«Mendietako baserrietan, kaleko plaza denetan; San Juan'en suak pizten dira gau zoragarri onetan. Au da eguna! Dena egia! Kontsolatzeko mundu guztia (...).»

Elizkizuna bukatuta, kanpoan txapliguen otsa, musika, dantza; eta jendearen arteko elkar izketa leuna.

Ondoren errira jaitsi eta jai giroa karrika nagusian Gazteak saltoka eta brinkoka. Berebil asko bi aldeetan eta gaurko tramankulu oriekin ots galanta plazan. Ilunabarrean San Juan suak argitzen zuten karrika guztia; ipar aldera Puterri —Aralar'eko gaillur aundia-zaindaria.

Bi aro, leengoa eta gaurkoa, besarkatu zituen nere oroimenak. Zein ohea? Garaian garaikoa. Bearrena alde oni gagozkiolarik, oitura zaarrei eustea, Euskalerri onen nortasunak aurrera jarrai dezan. Eta egia esateko, gaur egun ere Arbizu'k aundia daukala esan bear. Euskara barra-barra itz egiten bait da. Beste lekuetan ez bezelaxe, Arbizu'n gaur egun ere Nafar-izkuntza nagusi.

Joxemari Murua-Gofi

Berri Ona

Kristoren lekuko edo testigu

«Zu Arria zera; arri orren gainean eraikiko duk Nik nere Eliza» (Mt 16, 13-19)

SAN Pedro eta San Pauloren jaia aurreko urteetan baztertua egona da, baiña aurten igandean datorrelako, pozik ospatzen dugu. Zergatik mendeetan zear bi santu aukerarekin ospatu? Iñolaz ere, beren apostoluzan elkar osotzen dutelako. Biak Kristoren maitasun arrigarritz aukeratuak izan dira; biak Jesukristoren lekuko leial; biak kristau-elkartearen zutabe sendo.

Pedro arrantzale zela Kristok autatu eta Elizaren buru ipiñi zuen: «Zu Arria zera; arri orren gainean eraikiko dut Nik nere Eliza». Kristo da Elizaren egiazko buru, baiña Pedro eta aren ondokoak Kristoren ordeko izango dira: Eliza etsaien erasotik babestuko dute, eta Eliza gizaki guztientzat salbamen-sakramentu eta elkartasun-bide egiten aaleginduko dira.

Baiña Pedro ez zen gizon akatsik gabea izan: beroaldiaren ondoren, erorialdiak ere izan zituen, bere Maisua ukatzeraino. Baiña Espiritu Santua artu zuenez gero, Jesukristoren testigu leial izan zen, bere bizia emateraino. Gurutzean buruz beera jositaxil zutela diote.

Paulo bigarren orduko apostolu izan arren, ez zen besteak baiño kaxkarragoa izan. Damaskora-bidean Jesus berpiztua ikusi zuenez gero, bere lan bakarria Jesukristo ezagutzera ematea izan zen, neke eta eramanen aundien erdian. Pedrok juduen alde lan egin zuen bereziki; Paulok, berriz, jentillen alde. Paulo ezipataz il zutela diote.

Gaur egun ere bi apostolu aundi aien irakaspenak bizirik dirau: itz uts izan ordez, beren bizia Kristoren alde ematen dakiten aitorleak bear ditugugaur egun gure artean.

«Pedro, fedearren leenengo aitorlea; Paulo, fedeberonen argitzaillea; bata, Israelgo ondarrak bilduz, Eliza eraiki zuena; bestea, salbameneko berri ona jentillei ezaguterazi ziena. Biok, bakoitza bere graziaz, lan egin zuten Kristoren famili bakarria biltzen; eta biak orain ospe berean bat egiñik dauzkagu, gure gorespenak artzeko» (Egun onetako prefazioa).

A. Apaolaza

«Xomorroak»

Euskerazaintza aldizkaria (errebita), Euskerazaintza Akademiaren boletina da.

Oraintxe argiratu berriak ditu, batera, azkeneko bere bi zenbakiak (numeroak). Batera; biak monote-matikoak direlako, ots, gai bat berariburuzkoak direlako.

Gai ori Euskalerriko mozorroen izendaketa da. Mozorroak esaten zaien nere etxeko eta nere-neronen euskeraz. Baiña izen-pillo eder bat badute, aztelez «insecto» diren piztiño biurri oiek. Bañan nere us-tez iru dire izen oietako geienek «ama» izen diren ofarrizko-izenak: Bat, Gipuzkoa'ko Zomorro ta Nafarroa'ko Mozorro.

Bestea, Bizkaitarren Koko. Irugarrena, Ipartarren Mamu.

Beste izen guztiak, iru oietako bakoitzetik edo izen oietako bi al-kartzetik sortuak ditugula dirudi, geienak beintzet.

Ala, Bizkai'ko Kotxo, «koko»tik dator, «kokotxo»ren laburpena dela-ko. Benaparra'ko Mumutx, «mamux»ren tipiketa da («mamux» itza diminutibo biurtzea). Eta, Gipuzke-raz (Etcharri Aranaz'en), Bizkaieraz (Ondarroa'n) eta Goinaparra'ko Euskeraz (Lesaka'n eta Oyartzu-n'en) erabili oi den MAMORRO izena, «mamux» eta «zomorro» batera alkatuz sortu zakun izena da: «mam(u)» + «(zo)morro».

«Mamorro» ortatik sortuak ditu-gu, -dirudienez-, Gipuzkoa'ko

Mamarro, Laburdi'ko Marmalo, Ronkale'n esaten zen Marro, Benaparra'ko POTXORRO eta Gipuzkoa'ko Txamorro; azkeneko bi aukerak, «(e)txa» + «morro» eta «pot» + «xomorro», mozorro guztien izen orokorrak ez baiña mota bereizi bateko mozorroen izenak ez ba'dire.

Etimologi zaillekoak agertzen zaizkigu, Benaparra'ko Martiñar eta Zubero'ko Barbalot. Zubero'koak diren Aberaska eta Buiska izenek berriz, txikitasun-adierazlea den «KA», «SKA» atzikia darama-tela dirudi. Beraz, «aberaska», «abere-ska» ote da? ots, «abere txikia»? Bide ortatik jo ezker, zer izen ote daiteke «buiska'ren» «bui» aurrizkia?

Anitz izen baditu zomorro-mota bakoitzak ere. Izan oiek biltzea izen da Euskerazaintza Erri-Akademiaren naia, eta bere Boletina'ren azkeneko bi zenbaki auetan agertzen digu, bere adiskide ugarien laguntzarekin egindako azterketaren emaitza: Euskalerri guziko ogei ta amalau errietan bildutako zomor-roen izenak.

«Xomorroak» jarri dio izenburu egindako ikerketa-lan guziari. «Xomorro», berez, umeen izkuntzan zomorroi ematen zaien itz-tipi goxoa da. Izenburu arras ego-kia! «Moxorroen» izenak biltzeko egiten asi den ikerketa-lan orrek garrantzirik gabeko umekeritxo

mottela besterik ez dela ematen bait du: muttikoen eta nexkattoen jostaketa!

Bañan, bearbearrezko lana dugu lan ori, euskera bere osotasunean ezagutzeko, eta bere erraietarañ sartu aal izeteko.

Mozorroen izen oietako batzuk, euskalki ezberdinetan ibilli oi dire. Ikus, adibidez, «Mamorro» izenez esan duguna. Zer adierazi nai ote digu orrek? Antziñako euskaldun zar aie -Jainkoak daki noizko den-boretan- alkarrekin guk uste beño askoz tratu geiago izeten zutela? Alde batetik bestera maiz ibiltzen zirela? Edota, izen guzti oien azpitik, guztien sort-iturri, galdua dugun izen zaarrago bat noizbait izan zela?

Orra or, Euskalkiak Euskera-baitan betikoak edo leenagoko Euskera zar, orokor, galdu batetik sortuak ote diren jakiteari-buruzko arazo kilikagarri oraingoz aska-eziña. Lana, ordea, soilki asirik dago. Zuk ez al diguzu lagundu nai? Eska'zazu, doan (debalde) bidaltzen dugun «Euskerazaintza» boletina (Getaria 21. Donosti). Bertako galderei erantzuten saiatu zaitez, eta erantzunak bidali eizkiguzu norabide (direkzio) ortara. Len-bait egin bear dugun lana da. Bestela, gaurko aiton-amonekin, eundaka itz joango bait zaizkigu kanpusantura bitirako.

Latiegi'tar Bixente